



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/04/20

Foru Erakundeko kontratazino arduradunek 1.290 klausula sozial sartu ebezan 2017an euren prozeduratan

Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordearen aurrean gaur goizean zehaztu dauenez, 2017. urtean Foru Erakundeko kontratazino arduradunek, gizarte, ingurumen eta beste politika publiko batzuei buruzko 1.290 klausula sartu ebezan lizitatutako 122 kontratutan. Aldundiko Soziedadeek, barriz, beste 1.334 gehitu ebezan 131 kontratutan. EH Bilduk eskatuta etorri da Batzordera.

Eskaria egin dauen taldeak, igazko urtarrilean onetsi zan moduan, Administrazioaren Kontratazinarako Gida Praktikoan zehazten diran 32 klausula horreek sektore publikoan sartu ete diran itaundu deutso Aldundiko ordezkariari. Bengoetxea diputatuak azaldu dauenez, Estaduan legedia barria egotearen ondorioz dekretu barria onetsi eta gero, Aldundiak aldaketa horreekaz bat etorriko dan gida barria egingo dau. Gainera, azpimarratu dauenez, igaz ez zan ezelango penalizazinarik ezarri.

Erantzunen txandan EH Bilduko ordezkariak azpimarratu dauenez, taldeak “desorekea” ikusten dau klausulen artean, bardintasunari jagokezanetan, batez be; Podemos Bizkaia taldea, bere aldetik, interesauta agertu da zergen ebasinoaren eta giza eskubideen urraketaren gaineko klausulak sartzeko aukerea dala eta.

Talde Mistoa eta Talde Popularra eskertuta agertu dira emondako azalpenakaz, eta oraindino bide luzea dagola egiteko adierazo dabe. Foru Gobernua eusten daben taldeei jagokenez, Euskal Sozialistak taldeko ordezkariak, “aukeratutako bidea egokiena izan dala” azpimarratu dau, eta batzordekide jeltzaleak, bere aldetik, sailak egindako beharra jarri dau balioan, Bizkaiak “erreferentea izateko konpromisoa hartu ebala eta beteten ari dala” esanez.

ARAUZKO PLANA

Horrez gain, EH Bilduk, igazko abenduan aurkeztu zan 2018ko Foru Arau Planaren gaineko informazinoa emoteko be eskatu dau Aldundiko ordezkariaren agerraldia. Agerraldia eskatzeko orduan, EH Bilduk gai bi planteetan ebazan: lehenengoa, azken hiruhilekoan zergaitik batu dan xedapen onespén kopuru handia, eta bigarrena, zergaitik ez diran egiten horreen aurretiazko kontsulta publikoa eta entzunaldia eta jende aurreko informazinoa. Diputatuak azaldu dauenez, onespénetarako epeak sailek eurek aukeratzen ditue eta, gainera, xedapen mota bakoetak ezarritako epe jakin bat dauka. Gainera, onspén horreek urtean zehar modu ekitatiboan banatzen dirala azpimarratu dau.

Bigarren gaiari jagokenez, herritarren partaidetzarako prozesuaren salbuespena egiteko 18 erespide dagozala esan dau, eta xedapen bakotxean sailak izapide horreei eustea beharrezkoa dan ala ez erabagiten dauela.

FRANKISMOAREN BIKTIMEN GAINEKO ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENA BETETEA

Beste alde batetik, Ibone Bengoetxeak Podemos Bizkaiak eta EH Bilduk planteautako gaia landu dau, 2016ko zehazkiaren 26an onetsi zan Arauz Besteke Proposamenaren gainekoa, Foru Aldundiari eskaria eginez, Argentinako jurisdikzioak Bizkaiko frankismoaren biktimen gainean zabaldua daukan prozeduran akusazio moduan aurkeztu daiten eta erregimenak zigortutako Aldundiko beharginen errolda zabalagoa egin daian. Talde biek gauzatutako ekintzen gaineko informazioa eskatu dabe.

Herri Administraziozino diputatuak Aritz Ipiñak idatzitako *Represión y terror franquista en la Diputación de Bizkaia: Fusilamientos y depuración 1936 – 1976* liburua aitatu dau, eta Ana Messutiri, Argentinako kereilako abogaduari bialdu jakola esan dau, defentsarako tresna moduan erabili daian. Lurraldeko udalerrri guztietako alkateen artean banatuko da, herritarren esku jarteko. Gainera, esan dauenez, momentuz, Aldundiko zerbitzu tekniko juridikoek baztertu egin dabe Estaduko Epaitegietan kereila bat aurkezteko idea –Arauz Besteke Proposamenean adierazoten zan moduan– ez dagolako arrakastarako bermerik.

FINANTZETAKO LURRALDE KONTSEILUAREN BILEREA

Eguneko gai zerrendea, Ibone Bengoetxea diputatuaren azkenengo agerraldi eskari bategaz amaitu da, Podemos Bizkaiak eskatutakoa, joan dan zezeilaren 20an Bizkaiko Finantzetako Lurralde Kontseiluak izandako bileraren barri emoteko. Ogasun eta Finantzetako diputatuak orain hilebete batzuk egin eban moduan, Bengoetxeak azpimarratu dauenez, 8 urtetan, udalerriek Udalen Finantzaketarako Udalkutxa Foru Funtzari dirurik itzuli beharko ez deusien lehen aldia izango da, eta 12 milioi euro jasoko ditue, Estaduko Administrazio Nagusiak, kupoaren akordioa sinatu eta gero, transferitu dituan Autonomiarako eta Mendekotasunaren laguntzarako SAAD funtsetatik jasoko dituen 10 milioi baino gehiagoetatik aparte.

20/04/18

Los responsables de contratación de la Institución Foral incorporaron en 2017 un total de 1.290 cláusulas sociales en sus procedimientos

La diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha detallado esta mañana ante la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia que en el año 2017 los responsables de contratación de la Institución Foral incorporaron 1.290 cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en 122 contratos licitados, mientras que la Sociedades Forales añadieron 1.334 en 131 contratos. Su presencia en la comisión responde a una solicitud de EH Bildu.

El grupo solicitante ha interpelado a la representante foral si, tal y como se aprobó en enero del pasado año, estas 32 cláusulas, especificadas en la Guía práctica para la Contratación de la Administración habían sido incorporadas al sector público. La diputada Bengoetxea ha explicado que, tras la aprobación de un nuevo decreto como consecuencia de una nueva legislación en el Estado, la Diputación elaborará una nueva guía acorde a estos cambios. Asimismo ha resaltado el hecho de que durante el año pasado no se produjo ninguna penalización.

En el turno de réplica la representante de EH Bildu ha destacado que observan un “desequilibrio entre cláusulas” especialmente respecto a las de igualdad; Podemos Bizkaia, por su parte, se ha interesado por la posibilidad de incorporar cláusulas relativas tanto a la evasión de impuestos como a la vulneración de derechos humanos.

Tanto Grupo Mixto como Grupo Popular se han mostrado agradecidos con las explicaciones y han asegurado que aún queda mucho camino. En lo que a los grupos que sustentan al gobierno foral se refiere, el representante de Socialistas Vascos ha destacado la que “la vía elegida ha sido la adecuada”, mientras que el apoderado nacionalista ha puesto en valor el trabajo del departamento asegurando que Bizkaia “se ha empeñado en ser un referente y lo está siendo”.

PLAN NORMATIVO

Asimismo, EH Bildu ha solicitado la comparecencia de la representante foral para tratar una cuestión sobre el Plan Normativo Foral del 2018 presentado en diciembre del año pasado. En su motivación de comparecencia EH Bildu planteaba dos cuestiones: la primera sobre por qué se ha acumulado un gran número de aprobación de disposiciones en el último trimestre, y una segunda sobre las razones que existen para no realizar consulta pública previa y audiencia e información pública de las mismas. La diputada ha explicado que, además de que los plazos de aprobación los eligen los propios departamentos, cada tipo de disposición tiene un plazo estipulado. Asimismo ha insistido en la distribución equitativa de las mismas a lo largo de todo el año.

En los que a la segunda cuestión se refiere ha aclarado que existen 18 criterios por los que se puede llevar a cabo una exención del proceso participativo ciudadano y que el departamento valora en cada disposición si es necesario mantener esos trámites.

CUMPLIMIENTO DE LA PNN SOBRE LAS VÍCTIMAS DEL FRANQUISMO

Por otra parte, en la sesión de hoy Ibone Bengoetxea ha tratado una cuestión planteada tanto por Podemos Bizkaia como por EH Bildu, relativa a la Proposición No de Norma aprobada el 26 de noviembre de 2016 que instaba a la Diputación Foral a presentarse como acusación en el procedimiento incoado en la jurisdicción argentina respecto a las víctimas del franquismo de Bizkaia, y a elaborar un censo más amplio de trabajadores y trabajadoras forales que represaliados por el régimen. Ambos grupos han solicitado información sobre las acciones llevadas a cabo.

La diputada de Administración Pública ha hecho referencia al libro *Represión y terror franquista en la Diputación de Bizkaia: Fusilamientos y depuración 1936 – 1976*, escrito por Aritz Ipiña, el cual ha sido enviado a Ana Messuti como instrumento en su defensa, abogada de la querrela argentina, y que se repartirá entre los alcaldes de todos los municipios del Territorio para que estos lo pongan a disposición de la ciudadanía. Asimismo, ha asegurado que, por el momento, los servicios técnicos jurídicos de la Diputación desechan la idea de presentar una querrela en los Tribunales del Estado – tal y como estipulaba la PNN- al no haber garantía de éxito.

REUNIÓN DEL CONSEJO TERRITORIAL DE FINANZAS

El orden del día ha finalizado con una última solicitud de comparecencia de la diputada Ibone Bengoetxea, a petición de Podemos Bizkaia, para que explicara los temas abordados el pasado 20 de febrero en la reunión del Consejo Territorial de Finanzas de Bizkaia. Tal y como ya hizo el diputado de Hacienda y Finanzas hace unos meses, Bengoetxea ha destacado el hecho de que esta será la primera vez en 8 años en la que los municipios no tendrán que devolver dinero al Fondo Foral de Financiación Municipal Udalkutxa y que recibirán 12 millones de euros adicionales, además de los más de 10 millones que percibirán procedentes de los fondos SAAD de autonomía y ayuda a la dependencia, transferidos por la Administración General del Estado tras la firma del acuerdo del cupo.